

**26/2014 FORU ARAUA, UZTAILAREN 9KOA, GASTATUTAKO ERREGAI  
NUKLEARRA ETA ENERGIA NUKLEOELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN  
ONDORIOZKO HONDAKIN ERRADIAKTIBOAK SORTZEAREN GAINEKO  
ZERGARI BURUZKOA**

**(ALHAO, 84. zk., 14-7-28koa)**

**ZIOEN AZALPENA**

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzea erabaki du, besteak beste, gastatutako erregai nuklearra eta energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortzearen gaineko zerga adosteko.

Itun hori Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Arauaren, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoaren, bidez.

Ekonomia Itunaren 23 quinquies artikulua arabera, gastatutako erregai nuklearra eta energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortzearen gaineko zerga itundutako tributua da eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen bidez arautuko da.

Aurrekoarekin bat etorriz, foru arau honen bidez gastatutako erregai nuklearra eta energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortzearen gaineko zerga Arabako Lurralde Historikoko zerga sisteman sartuko da, haien erabilera ingurumenarekiko eta iraunkortasunarekiko eraginkorragoa eta errespetutsuagoa izan dadin, Europar Batasunaren zerga, energia eta, noski, ingurumen politika eraentzen duten oinarritzko printzipioen ildotik.

**I. KAPITULUA**

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua. Izaera.**

Gastatutako erregai nuklearra eta energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortzearen gaineko zerga zuzeneko tributu erreala da, foru arau honetako 4. artikuluan zehazten diren jarduerak, zerga gaia osatzen dutenak, kargatzen dituenak.

**2. artikulua. Araudi aplikagarria.**

1. Ekonomia Itunaren 23 quinquies artikuluan xedatutakoaren ildotik, zerga foru arau honetan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz eskatuko da.

2. Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko Espainiako barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

### **3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.**

Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du zerga, baldin eta gastatutako erregai nuklearra eta energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortzen dituzten instalazioak Arabako Lurralde Historikoan kokatuta badaude.

### **4. artikulua. Zerga gaia.**

1. Honako hau da zerga gaia, hurrengo artikuluetan aurreikusten diren baldintzetan:

- a) Erreaktore nuklear bakoitzetik sortzen den gastatutako erregai nuklearraren ekoizpena.
- b) Energia nukleoelektrikoaren ekoizpenaren ondoriozko hondakin erradiaktiboaren ekoizpena.

2. Aurreko paragrafoko a) idatz zatian aipatutakoaren ondorioetarako, gastatutako erregai nuklear gisa hartuko da irradiatutako erregai nuklearra, hura erreaktoretik behin betiko erauzten denean.

Erreaktoretik erauzi den gastatutako erregai nuklearra gero berriz ere erreaktorean sartzen bada, eta aurreko erauzketa batean artikuluko honetako a) idatz zatian jasotako zerga gaia gertatu bada, azken erauzketa horrek ez du beste zerga gai bat eragingo.

### **5. artikulua. Zergadunak.**

1. Zergadunak dira pertsona fisikoak edo juridikoak, eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 35.3 artikuluan aipatzen dituen erakundeak, horiek aurreko artikuluan adierazten den jardueraren bat gauzatzen dutenean.

2. Zerga zorraren erantzule solidarioak izango dira zerga gaia egiten duten instalazio nuklearren jabeak, horiek ustiatzen dituztenekin bat ez datozenean.

## **II. KAPITULUA**

### **GASTATUTAKO ERREGAI NUKLEARRA**

### **6. artikulua. Zerga oinarria.**

1. Honako hau da zerga oinarria: gastatutako erregai nuklearrean dauden metal astunaren kilogramoak. Bertan dauden uranioa eta plutonioa izango dira, hain zuzen, metal astunak.

2. Aurreko 4.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, gastatutako erregai nuklearra erauzi den erreaktore nuklear bakoitzerako zehaztuko da zerga oinarria.

3. Ustiapena behin betiko eteten den kasuetan, honako hau izango da erreaktoreko erregai guztiaren behin betiko erauzketari dagokion zerga oinarria: aurreko lau karga etenaldietan erreaktoretik behin betiko izaeraz erauzi den erregai nuklearreko metal astunaren pisuari dagokion batez besteko aritmetikoa.

### **7. artikulua. Zerga tasa eta kuota.**

Zerga oinarriari metal astunaren kilogramo bakoitzeko 2.190 euroko zerga tasa aplikatzean lortutako emaitza izango da zerga kuota.

## **8. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.**

1. Zergaldia erreaktore bakoitzaren eragiketa zikloarekin bat etorriko da. Erreaktorea kargatzeko ondoz ondoko bi etenaldiren artean igarotzen den denbora tartea izango da eragiketa zikloa. Zergadun bakoitzak erreaktoreak bezainbeste zergaldi izango ditu. Era berean, eragiketa zikloa hura karga etenaldi baten ostean berriz ere sare elektrikora konektatzen den egunean abiaraziko da, eta hurrengo karga etenaldiaren ostean berriz konektatzen denean amaituko da.

2. Zergadunak, 4.1.a) artikuluan jasotako zerga gai den jarduera eteten badu, etetea gertatzen den egunean bertan amaituko da zergaldia.

3. Zergaldiaren azkeneko egunean sortuko da zerga.

## **9. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.**

1. Zergadunek nahitaez autolikidatu beharko dute zerga eta nahitaez ordaindu beharko dute dagokion kuota, zergaldi bakoitza amaitu eta hurrengo hilabeteko lehen 25 egunen barruan, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarritako arauari eta erduei jarraiki.

2. Ekaineko eta abenduko lehen 25 egunetan, zergadunek ordainketa zatikatu bat egin beharko dute adierazitako hilabete bakoitzeko 1. egunean abian den zergaldi bakoitzari dagokion likidazioaren kontura, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarritako arauari eta erduei jarraiki.

3. Honako hauek osatuko dute ordainketa zatikatua kalkulatzeko oinarria: abian den zergaldian erreaktoretik behin betiko erauzi behar den gastatutako erregai nuklearreko metal astunaren kilogramoak, honako zatidura honekin biderkatuta:

- Zenbakitzailean, abian den zergaldiko lehen egunetik ordainketa zatikatua egiteko epea abiarazi arte igarotako egun kopurua.
- Izendatzailean, abian den zergaldiak iraungo duen aurreikusitako egun kopurua.

Horrenbestez, honako hau izango da ordainketa zatikatuaren zenbatekoa: aurreko lerrokadan aurreikusitako oinarriari 7. artikuluan zehaztutako zerga tasa aplikatuzetik lortzen dena, zergaldian burututako ordainketa zatikatuak kenduta.

## **III. KAPITULUA**

### **ENERGIA NUKLEOELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN ONDORIOZKO HONDAKIN ERRADIAKTIBOAK**

## **10. artikulua. Zerga oinarria.**

1. Ekoitzi diren jarduera ertaineko, baxuko eta oso baxuko hondakin erradioaktiboen metro kubikoek osatzen dute zerga oinarria, hondakin horiek instalazioan bertan aldi baterako biltegitratzeko egokituak izan direnean.

2. Zerga gai diren jarduerak gauzatzen dituen instalazio bakoitzarentzat zehaztuko da artikulua honetan definitutako zerga oinarria.

## **11. artikulua. Zerga tasa eta kuota.**

Zerga oinarriari karga tasa hauek aplikatzearen emaitza izango da zerga kuota:

- a) Jarduera baxuko eta ertaineko hondakin erradiaktiboen kasuan, 6.000 euro metro kubiko bakoitzeko.
- b) Jarduera oso baxuko hondakin erradiaktiboen kasuan, 1.000 euro metro kubiko bakoitzeko.

## **12. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.**

- 1. Zergaldia urte naturala izango da.
- 2. Zergadunak, 4.1.b) artikuluan jasotako zerga gai den jarduera burutzean, jarduera eteten badu, etetea gertatzen den egunean bertan amaituko da zergaldia.
- 3. Zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

## **13. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.**

- 1. Zergadunek nahitaez autolikidatu beharko dute zerga eta nahitaez ordaindu beharko dute dagokion kuota, zergaldi bakoitza amaitu eta hurrengo hilabeteko lehen hogeita bost egunen barruan, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarritako arauari eta ereduei jarraiki.
- 2. Ekaineko eta abenduko lehen hogeita bost egunetan, zergadunek ordainketa zatikatu bat egin beharko dute hilabete horietako 1. egunean abian den zergaldi bakoitzari dagokion likidazioaren kontura, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarritako arauari eta ereduei jarraiki.
- 3. Ordainketa zatikatuen zenbatekoa artikuluko honetako 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera ordainketa zatikatuko ordainketaren aldi bakoitzari dagozkion zerga oinarriaren zenbateko zehatzak kontuan hartuta kalkulatu da, 11. artikuluko zerga tasa aplikatuta.

## **14. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.**

Zerga honekin lotutako arau hausteak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuak, zerga arau hauste eta zehapenen arautegia onartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritik sailkatu eta zehatuko dira.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

### **Bigarrena. Gaitzea.**

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

## **OHARRAK**